

Etxean kontu-kantari 6

Arre, arre, mandoko

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri Elkartea.

Helduaren oin baten gainean eseriko da haurra. Helduak kantaren erritmoan eragingo du oina, haurra trostan eragiteko.

Arre-arre mandoko.
Bihar Iruñerako,
etzi Tolosarako.
-Handik zer ekarriko?
-Zapata eta gerriko.

Hain urrin etxe poxpola

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri Elkartea.

Kanta polit hau, keinuz lagunduta familian abestu dezakezue.

Hain urrin etxe poxpola, ola, ola!
Tximinitik gora kea dariola, ola, ola!
Gaintxoan arbola zelai erdian,
Erreka pol-pola etxe atarian:

Trailara eta trailara
Dena txiki-txikia, txikia horra.

Jo atetxoko txilina, ola, ola!
Sutondoan kuzkur lo-lotan mitxina, ola, ola!
Sutan danbolina gaztain erretzen,
Lapikoan gal-gal babak egosten:
Tra lara...

Badator etxeoandrea, ola, ola!
Begitxoak ñir-ñir, ahoan irria, ola, ola!
Zuri-zuri ilea eta buru-zapia,
Zuri-gorri umea jaio-berria:
Trala rala...

Magaltxoan estutzen du, ola, ola!
Urrumakatzen du, urrumakatzen du, ola, ola!
“Gure txikitxo, egizu lo-lo,
Lo-lo txikitxo bat, apapa gero”:
Trala lara...

Arriola marriola

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gaintik*. Galtzagorri Elkartearen.

Zotz egiteko kanta hau erabil dezakezue jolas ezberdinen aurretik bulea aukeratzeko: ezkutaketan, korrika egiteko jolasetan...

Arriola marriola
kin kuan kin;
Portan zela portan min;
Arrexinalet arrexinalet;
Segeberren megerren,
Kirun karun, pek!

Baketxe kalean

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri Elkartearen.

Korroan ibiliko dira hitz jokoa esaten. “Hiru kaka mokordo” esaten denean, hiru haurrek buelta eman eta kanpora begira jarraituko dute jolasa. Denak kanpora begira geratu arte errepikatuko da jolasa.

Baketxe kalean,
kale bazterrean,
hiru kaka mokordo
errial batean.

Ilargia gazta handi bat da

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainerik*. Galtzagorri Elkartea.

Herri batean, ilargia gazta handi bat zela uste zuten eta hura dastatzeko planak egin zituzten...